



Esp. kodea: 2016SAPL0012

Gaia: PLENOA 2016/11/29
Hasiera eguna: 2016/11/21

AKORDIOEN LABURPENA

Udal Plenoak, 2016ko azaroaren 29a egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Udal Plenoak, aho batez, 2016ko urriaren 25a egindako bileraren akta onartu du.

2.- GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN ESTATUTUEN ALDAKETA. HERRI ADMINISTRAZIO BATI ATXIKITZEAREN ZEHAZTAPENA. (2016ZZER0188)

Aho batez onartzen da Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren Estatutuen 3. artikularen aldaketa, honela geldituko dena:

- “1.Kontsortzioak berezko nortasun juridikoa du eta jarduteko gaitasun osoa bere helburuak betetzeko.
2.Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 120. Artikuluan ezarritakoaren xedeetarako, kontsortzioa Gipuzkoako Foru Aldundiari atxekita geratzen da. Foru arauak atxikitze horren edukia eta norainokoa zehaztuko du.”*

3.- ESPEDIENTE BATEN ERABAKI PROPOSAMENA, DEKLARATZEKO KOKALEKU BERRIA EGOKIA DELA GARAIAKO UR DEPOSITUAN TELEFONIA MUGIKORREKO TOKI BAT EZARTZEKO. (2016HHHH0091)

Aho batez onartzen da kokaleku berriaren egokitasun adierazpena telefonia mugikorreko tokia ezartzeko Garaiako ur deposituan, VODAFONE ESPAÑA SAU-k eskatu legez.

4.- PROPOSAMENA BEHIN BETIKO ONARTZEKO AGIRI BERRIA HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIAREN ALDAKETA PUNTUALARI BURUZ A.E.78 - ZABALETA (LEHEN A.E.104) EREMUAN.

Aho batez onartzen da, behin betiko HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIAREN LEHEN ALDAKETArena AE 78 - ZABALETA (LEHEN AE 104) EREMUAN. Halaber, egondako alegazioen erantzun proposamenak onartzen dira.

5.- 2016KO AURREKONTUAREN EXEKUZIO EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA, 2016-09-30ean.

Osoko bilkurak berri hartu du.

6.- INFORMAZIOA 2016KO AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETEN ESPEDIENTEEI BURUZ, 2016KO 3. HIRUHILEKOAN ONARTUAK TOKIKO GOBERNU BATZARRAK. (2016RBAR0043)



Esp. kodea: 2016SAPL0012

Gaia: PLENOA 2016/11/29
Hasiera eguna: 2016/11/21

Osoko bilkurak honen berri hartu du.

7.-IRABAZI ETA BALEIKE UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, LAIKOTASUNAREN INGURUAN. (2016SMOZ0019)

Mozioa onartua geratu da aldeko 13 boto (EH BILDU, PSE-EE, BALEIKE eta IRABAZI) eta kontrako 8 botorekin (EAJ-PNV)

8.-EAJ UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ARRASATEKO USADIOEN ALDE.

Mozioa onartua geratu da aldeko 11 boto (EAJ-PNV eta PSE-EE) eta kontrako 10 botorekin (EH BILDU, BALEIKE eta IRABAZI).

9.-IRABAZI UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, KONTRATAZIO BEHATOKIAREN INGURUAN.

Mozioa ez da onartua izan aldeko 10 boto (EH BILDU, BALEIKE eta IRABAZI) eta kontrako 11 botorekin (EAJ-PNV eta PSE-EE)

10.-EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN INGURUKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Aho batez onartu da adierazpen instituzionala

Arrasaten, 2016ko azaroaren 29a

IDAZKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta